



MUNDU IBIRIBILIA

Gipuzkoako lehen maila irakaskintzaren egoera Eta bertan nabari diren bilinguismo prolemak

Gure artean gutxi ohi dan bezalako lan serioa dugu argitara berri: Gipuzkoako lehen maila irakaskintzaren egoera, bere inguru dituen prolemak zehaz-mehaz agererraziz. Sozio-ekonomiko estudioak egiten dituen Gaur, S.C.I. delakoak eskeintzen digu, J. A. Agirre-ren zuzendaritzapean argitaratu den liburua. Bere izenburua: *Así está la Enseñanza Primaria (Hablan los maestros. Informa Gaur)*. Bere 28 x 22 cm. neurrian 334 orrialde ditu.

Maiz uxatu ditugu Euskal Herriko kultura eta prolemari buruz erderaz idatzi diran liburuek, gure literatura suspertu nahirik, baina orain-gu hau, harrigarria badirudi ere, erderaz hobeto datorrela esango genuke, zeren bertan bilinguismoari buruz azaltzen dituan prolemak erdeldunentzat jakinarragoak dira eskaldunentzat baino, zeren gure mintzairarekin irakaskintzan zer gertatzen dan salatu beharrik ez dugu bagera begira, baina bai kanpora begira.

Lehen mailako irakaskintzaren azterketa orokorra dakar liburua honetarik. Gai gutxiak idatzi interesgarriak dudu gabe. Baina euskeraren egoera larriarekin arduratzen geranontzat, hereziki, bosgarren partean da klinikagarriena euskerarekin bilinguismoari buruzko prolemak eta soluzioak agererrazitzen ditualako. Beraz parte honi soilik tinkatuho gera.

Beste parte batzuetan ere berri jakinarrak ditu bilinguismo prolemari lotzen diranak, edo honetarik zer ikusia dutenak. Adibidez, 48/49 orrialdeetan agertzen du XLX-gn. mendean prolema holec zer bide hartu zuten. Eskolak zer diru laguntza eta zelan duten ondorean, 53-gn. hor. argi jartzen du Gipuzkoan udateleak eta Diputazioak beste prolemak baino gehiago gastatzen dutela: esate baterako, Espainiako udateleak erdizpurdil 176 ikasleko eta Gipuzkoakoak 371 pepeta, eta gainera gastuen iturriak zehatz agertuaz. Era berean, Gipuzkoako fameliak gehiago gastatzen dute, gainerakoak baino: hemen, erdi neurria %etik 1.00 dalarik, gainerakoetan %etik 0.6koa da.

Horrela, liburuaren zehar, numeruak ari zaizkigu kantari, kantari bezin salatu. Lehen parteko estadistikan agertzen danak, maixurik gabienak herbestekoak ditugu (hemen eskaldunon maixurako ahultasuna salatzen du; maixu gabe ez bal-

ta posible euskerazko eskolak antolatzerik), eta gainera ehunetik 70 euskerarik ezertxo ere ez dakitenak.

Era guzietako prolemak, zahazki datoz laugarren partean. Baina esan dugun bezala, bostgarrena da euskaltzaleontzat garrantzitsuenak.

Bostgarrena, liburuaren 193/220 orrialdeari itsatsia, arestian esan dugun bezala, gure hauzarako interesgarria. Maixurik egindako inkestak salatzan digunetik dakigu, gaur egun, Gipuzkoako «Primaria» irakaskintzako haurren artean: ehunetik 54.2 dira gaztelera hutsik dakitenak, %etik 12.1 gaztelera ondo eta euskerak gutxi, %etik 17.1 bi hizkuntzak ondo dakizkienak, %etik 13.9 dira euskerak ondo dakitenak eta erdera galziki, eta %etik 2.7 euskerak hutsik dakitenak.

Maixurik galdetean, euskerak irakaskintzarako denbora galarazten duen ala ez, erantzunak bieterikoak dira. Eta euskerak haurra ikasteko kalte egiten dituen ala ez galdetean ere, antzerako erantzunak dira, nola ta hemen euskeraren alde gerhentuenak etorri. Hontaz, gora-behera guztiak numeruzko zehaztasunez ematen dira. Baina maixurik galdetean, irakaskintzan euskerari sarrera eman behar zaien ala ez, ehunetik 62.8-ik baletz diote, eta ehunetik 37.2-ik ezet. Ondorean, euskerazko klaseak noloz eta zelan emateari buruz, %etik 67.4-ren irizitan eskola orduetan, eta %etik 32.6-ren ustez eskola orduetatik kanpora. «Primaria»-an euskerari sarrera ofizialki eman behar zaien ala ez, maixu holec galdetean, %etik 42.3-ren irizitokoa baietza eta gainera eskola orduetan, %etik 20.5-en irizitan ere bai, baina eskola orduetik kanpora, eta %etik 37.2-rik eman zuten ezetza.

Ez dira hain gaizki iriziti holec. Gainera hementxo maixuek Unesco-ren erabigien berririk ez dutela dakigularik, zeren hementz ez bai zan ezagutzera zabaldu l'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement, 1953-an argitaratua, eta ez bere gaztelera-ko itzulpena. Empleo de las lenguas vernaculares en la enseñanza 1954-an argitaratua. Horrez gainera, kontu izan maixurik gehienak herbestekoak direla. Eskergerria beren borondatea. Honetan ere bertako jendea ez ote da txerrena?

GOGOAN DITUGUN ZENBAIT

Baina bada gauza harrigarriagorik, liburu honetan. Herbestetik lanex

ogia irabaztera etorriak diran guraso langileek egin zaizkien inkestak erakusten ditugena. Inmigrante gurasoetarik, ehunetik 80-ik nahi dute beren semea euskeraz irakastea. Beraz, gehien-gehienak dira beren semeak euskaldun ikusi nahirik. Itxuraz hain egoera larria nabari zaigun une honetan, argi ikusten da demokraziak jokatzera gure euskerak zer etorizun duen. Errazol bidez, euskeraren bizitza oraindik ezin diogu eman etsipenik. Batez ere, gu, euskaltzale sentitzen geranok zelatari erial begu-de, zentuzeko estudio holecian gure oinharriak idoro eta herrialo oro agererrazi, herri euskaldunari, lozorotrik iratzar dezagun. Hau gure lana.

Lehen mailako irakaskintzan bilinguismoaren behar gorria agertzen du inkeste bidez Gipuzkoan egina dan estudio honek, beharra salatuaz eta bidea markatuaz: herbestetik etorritako langile famelik ere %etik 80-ik gogo hori erakusten dutelarik batez ere.

Aurre partean jartzen ditui, liburuak, bilinguismoak dakartzin alde onak eta txarrak eta zer erataria eman behar diran irakaskintzak. ONU eta Unesco-ren agiriari oratuaz bideratzen ditualarik, herri hizkuntzaren alderako errotoak eta ikastaro mailetan zelan emantari buruz ere mintzo da, zenbat konparazio gehituaz hemengo egoerari buruz.

Prolemak hauek bideratzeko Ministerio de Educación y Ciencia delakoak izendatu behar beharrezkoak izango du liburu hau. Eta, Villar Palasi-k adierazi duen asmu ona eta korteeetako zenbait diputaduk ere bai, batez ere gipuzkoarrak eta nafarrak, inoiz baino itzaropen hobez adierazten digute aspaldiko oker hauek zuzentzeko posibilidadea. Hala bedi.

Baina, bitartean, Euskal Herrian irakaskintzak arduartzen diran gutxiuztat jakinarrak izanen da liburu hau. Hizkuntzaren bizi-biderako oinharrikoan diranez eskolak, hor galdutuko da estudio hau euskeraren herlotza bidean salatu, baldin denboraz eta era egokienaz gaitzari erremedioak jartzen ez baizitko. Gure zoriarik hunkigarrienak Gaur, S.C.I.-koek eta hereziki J. A. Agirre zuzendariak.

JUAN SAN MARTIN

ERDI - SORTALDEKO OLIO - BIDEAK

«Trans-Arabian-Pipe-line» deritzaion olio-bidea, Persiako itxas-golkotik Mediterraneora dijoana, 1950 gnean bukatu zan. «Iraq Petroleum Company»-ko olio-bide aundia, Baniya-ra datorrena, 1952 gnean. Bigarren au geroztik beste orrenbestekoa egina da, Tripoli-raino iristen dala. Baina azkeneko amasei urte auetan batere olio-bide berririk ez da egin Mediterraneo inguruan. Jakin bearra da denbora ontan lur-alde orietan leenago baino bost aldiz geiago petroleoa artzen dala. Zeratik desberdintasun au? Politika aldetik datozten oztopok izan dira erdi erdian.

1947 gnean jaloa zan «Middle East Pipelines Ltd.» Kuweit-tik eta Irandik Mediterraneora petroleoa iritxi arazteko. Baina Irak-ek bear ziran tutuak egiteko etzuan baimenik eman.

Bestaldetik, 1952 gnean «Bechtel-ek Irak-tik Paris-a olio-tutu bat egitea gogoratu zuan baino laister ikusi zan itxasozko joan-etorriak merkeagoak zirala itxas-azpiko lan aundi oriek baino. Eta ziurtasun aundiagoak gainera. Olio-bideak autsi bait litezke naia edo nai gabe.

Gaurko egunean, Suez-ko urbidea itxita dagon ezker, olio-bideak buru-ruauste aundiak sortzen dituzte. Mediterraneora irixten diranak beinere baino geiago balio dute ta jo ta ke eten gabeiko lanean ari dira. Petroleo-egintarien asmoetan badira bi olio-bide berri egin bearrekoak bat Israel zear, bestea Ejipto zear. Baina berri ere, politika aldetik jarriak dauden oztopok aundiak dira ta ez da erreza buru auek aurretan daramakiten lana.

LEENGO OLIO-BIDEAK

«Iraq Petroleum Company»-renak Kirkouk-en sortu ta Tripolin, Libanoan, bukatzen dira. Tutu batek Iraq-eko petroleoak jartzen ditu Mediterraneora itxasoratzen diralarik, 851 kilometroko bidea igaro ondoren. Beste tutu ta Baniyaen, Sirian sortu ta esandako itxasora irixten da ta 888 kilometro luze ditu. Azkeneko urte auetan ikaragarriko zorrak egin dira, lan asko egin izan arren.

«Tapline»-olio-bidea ere zorretan dabil, arabitarrek eta Israeldarrek dabilkiten gudagatik, noski.

Bi olio-bide auek irabazi aundiak dakartziete lur-azpia uzten dieten



erriari. «I.P.C.»-k 1967 gnean amairu miloi libra esterlina ta erdi eman dizkio Siriri. 1968 gnean, ogelabait miloi ta erdi.

«Tapline»-ek eman dizkio Siriri lau miloi dolar 1967 gnean eta bost miloi dolar 1968 gnean. Beste orrenbeste, Libanori ta Jordanitari.

ITXASO-GORRITIK MEDITERRANEORAKO ASMOAK

Nolazan bein somatu da Euzko itxas-bidearen parean olio-bide bat egitea. Etrialde aietako guda ezker, Israeli gogoratu zitzaion tutu berri bat egitea, Itxaso-Gorritik Mediterraneora. Orain bertan bada beste bat Eliat-tik Haifa-ra dijoana, baino txikiyegia Berria 60 miloi tonelada eramateko aal izango omen da. Baina erabitar erri goienak ez dute nai izango euren petroleoa tutu ortatik joatea.

Ejiptok bere aldetik esana du bere ere olio-bide berri bat egiteko dela Suez-tik Alejandria-ra. 50 miloi tonelada jasoko ditu urtean. Dana dala, bi asmoak zail xamarrik dira dabilkitanak.

BESTE TUTU TA BESTE NAIK

Erdi-Sortaldean badira beste olio-bideak ere, petroleoa batetik bestera eramateko. Sirian, Turkian. Beste erri batzuetan, erri-barruan ibiltzeko jarriak dauden olio-bideak ere jarri dituzte kanpoko petroleoa artzeko eran. Orge urte igaro ondoren gaur gaurko azaltzen da, berri, Mediterraneanuntz datz oten olio-bide orien kontua. Irak-ek berea nai luke izan, Turkia azpitik. Iran-ek ere berdin, arabitar erririk ikuituko ez duan tutu bat, 1750 kilometro luzekoa egitea erabaki du.

Gauzak ola, Persiako itxas-bazterretik datozten olio-bideak itota utzi ditun ekaltza ez da politika aldetik sortu litezken naaspilik alnekoa. Auek ondutuko bait lituzkete edozein olio-bide nai aina luzaroen, Aurtengo libel-tzean «Kharg» izenekoa 238 ordu barru geldituarazia izan zan. Haifa-ko olio-bidea geldi dago 1948 gneko jorrella ezker. «I.P.C.»-koak berri, itxialk izan dira 1956 gneko ezaroen, 1958 gneko abenduan eta 1967 gneko garrarilean, beti gudagatik. Ez da arritzekoa erri oriek itxas ontzi bereiztan begira jarria izatea.

GOIZ

Landola-erremintek — Lan-tresna guzietarikoak. — Geltzairu kalibratuak. — Leunketa gaiak.

F ERRETERIA U NZETA

EIBAR, Apartado 18. Ibarrezcruz, 14

Urrutizkifia 71.000

Ez Merkenak Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak. Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

Muebles Inchausti

Laarte'n dagon etxe on ba [tek eskeintzen dizu ostatu. an dauden gauze zoregarriak bixitatzera prestatu. Apela, dotorez, berdiflik ezta; ifiola ezin puskatu. MUEBLE bearez baldin ba [zera INTXAUSTI'NEAN eskatu.

Estación, 19

Urrutizkifia: 97580

LASARTE